



## Herriko ateak zabalik sanpedroei

**FESTAK** ▶ Areson, Asteasun,  
Larraitzen, Leaburun eta Urkizun  
ospatuko dituzte San Pedro jaiak

**EGITARAUA** ▶ Gaur ekingo diete  
ekitaldiei Asteasun, eta igandera  
arte luzatuko dira herri guztietan. ▶ 6

### ANOETA ▶

Igarabide eta  
San Joan  
kaleak  
bi metroko  
espaloiaz  
lotu dituzte

Autoen zirkulaziorako  
errepidea ere  
zabaldute ▶ 4



Zabaldutako espaloia. I. GARCIA



N. LATABURU

## Eskubide zibil eta politikoen alde, kalera

**TOLOSA** ▶ «Ertzainak Batasuneko batzarra eragotzi eta bildutakoak  
kanporatu» zituela salatzen, kontzentrazioa deitu dute eragileek ▶ 2

### LEITZA ▶

**Karlos Agirre: «Elkartea ixten  
bada ezin dugu jarduerekin  
jarraitu; hau gauza serioa da»**

Zuzendaritza eratzeko azken aukera dute biharko batzarra  
Aurrerakoek, eta inor aurkezten ez bada elkarte deseginen  
dute; egoera larriaz aritu da egungo lehendakaria ▶ 7

## ASTEASUN SANPEDROAK

San Pedro jai  
zorioitsuak  
igaro ditzazuela  
opa dizuegu  
herritarroi



Asteasuko Udala

### Ekainak 28, asteazkena

22:30: BERTSO SAIOA  
FRONTOIAN

#### Bertsolariak:

ANDONI EGAÑA  
AITOR MENDILUZE  
SUSTRAI COLINA  
AMAI AGIRRE  
JESUS M<sup>3</sup> IRAZU  
Gai jartzailea: JON ZALDUA

### Ekainak 29, osteguna

11:15: MEZA NAGUSIA

18:30: ASTEASUKO XI.

DANTZA SOLTEKO

TXAPELKETA

19:30: HERRIKO MUSIKARIAK

23:00: MAL. DE OJO eta IZOTZ

### Ekainak 30, ostirala

(Jubilatu eta Koadrilen eguna)

14:30: JUBILATUEN BAZKARIA

14:30: KOADRILEN BAZKARIA

Arratsaldean zehar:

TRIKITILARIAK, HAUR JOLASAK,

SOKAMUTURRA TXIKIA

20:00etan: MULAMBO -

BATUKADA KALEJIRA-

21:00 tan: HERRI AFARIA

Ondoren LAJA eta IZER - EPELDE

eta LUTXURDIO

### Uztailak 1, larunbata

(HAURREN EGUNA)

11:00etan: Krossa eta marrazketa

lehiaketa

13:00etan: HAURREN BAZKARIA

### Uztailak 1, larunbata

(HAURREN EGUNA)

11:00etan: Krossa eta

marrazketa lehiaketa

13:00etan: HAURREN

BAZKARIA

17:00etan: ASTEASUKO XX.

MUS TXAPELKETA HERRIKOIA

Frontoian

18:00etan: KALE ANTZERKIA

ATIKUS Teatro taldeak

aurkezten du:

UNTXITEGITAKO KUKUMIS

MELOA

Ondoren Buruhandiak

Gaueko 23:00etan: ABIBA

Diskojaia goizalderarte

### Uztailak 2, igandea

12:00etan:

ASTEASUKO PALA

TXAPELKETAREN

FINALA

Ondoren:

SAGARDO

DASTAKETA Plazan

18:00etan:

HERRITARREN

ARTEKO HERRI

KIROLAK

19:00etan:

TAPIA eta LETURIA

taldearekin

ERROMERIA

## POLITIKA ▶

# «Batasuneko kideak batzarretik kaleratu izana salatzen» konzentrazioa, etzi

'Eskubide zibil eta politikoen alde' lelopean Trianguloan elkartuko dira, 20:00etatik aurrera; Tolosako hainbat eragilek atxikimendua adierazi dute

NOELIA LATABURU

Pasa den ekainaren 21ean, asteazkena, Batasuneko kideak Tolosako Kultur Etxean batzarrera burutzen ari zirela, Ertzaintzak eragotzi egin zuen, «bildurik ziren bilera aretoan sartuz eta partaideak kaleratuz». Jazotako gertakari honen aurrean, eragile desberdinek euren desadostasuna azaldu nahi izan dute. Hori dela eta, etzi, ostiralarekin, konzentziora deitu dute, 20:00etatik aurrera, Trianguloan. *Eskubide zibil eta politikoen alde* lelopean.

«Gertaera hau larritzat jotzen dugu, Tolosako herritar askoren oinarrizko eskubide zibil eta politikokoak urratuak izan direlako», adierazi zuten



Hainbat eragilek atxikimendua erakutsi dute, etzi, 20:00etan Trianguloan izango den konzentziorako. N. L.

atzo arratsaldean Tolosako Kultur Etxean eginiko prentsaurrekoan. Halaber, nazioarteko eskubideen inguruko legegria ekarri zuten gogora, «zeinek argi eta garbi adierazten duen denok dugula iritzi librea izateko eta hura adierazteko eskubidea». Hori dela eta, «Ertzaintzak Batasuneko batzarrean eginiko esku-hartze hori» aipatu oinarritzko eskubide unibertsal honen aurkako «eraso zuzena eta tolosar askoren aurkako jazarpena» dela goraipatu zuten.

## Parte hartzeko deia

Bada, hau guztia salatzen helburuz, hainbat eragilek «herritar guztien oinarrizko eskubideen aldeko aldarrikapena» egin nahi dute, eta tolosar guztiak berezia egiten diete «gertaera honen aurreko aurkakotasuna ager dezaten» eta, etzi, ostiralean 20:00etatik aurrera, Trianguloan elkar daitezten.

Besteak beste, Mikel Uzkudunek, Jose Manuel Agirrek, Egoitz Goikoetxeak, Juanjo Ruizek, Josune Agirrezabalak eta Mikel Zubiriak adierazi dute egoeraren aurrean atxikimendua, beste hainbatekin batera.

## MUSIKA ▶

## 750. urteurrenerako egindako 'Tolosako Musika' bi CD aurkeztuko dituzte biharkoan Musika Eskolan

ERREDAKZIOA

*Tolosako Musika* bi CDren aurkezpena egingo dute, bihar, 20:00etatik aurrera, Tolosako Musika Eskolan. Bi CDtan Tolosako Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak, Tolosako Orfeoaren laguntzarekin inter-

pretatutako doinu tradizionalak biltzen dira. Ekimen hau Tolosa 750 Fundazioaren eta Kutxaren arteko erlanean bi-tartez burutu da.

Aurkezpenean Luis Mari Garcia Musika Bandako zuzendaria, Iñaki Letamendia Udal Txistulari Bandako zuzendaria,

Maite Chocano Tolosako Orfeo-ko kidea, Txema Garces CD-etako ekoizle artistikoa, Kutxako ordezkar bat eta Jokin Beldarratz Tolosako alkatea eta Tolosa 750 Fundazioko lehendakaria egongo dira. Halaber, Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak CDetako zenbait

doinu aurkeztuko dituzte zuzenean. Diskoetan agertzen diren txistularien argazkiak Eli Garmendia argazkilaria tolosarrena dira.

Tolosa 750 Fundazioak CD hauetan denboran zehar irauten duten doinuak bildu nahi izan ditu, Tolosako zein bere biztan-

leen historiaren zati diren doinuak, alegia. Eta ekimena Tolosako Musika Bandaren eta Udal Txistulari Bandaren eskutik sortu zen, beraien herria 31 kantu tradizionalen bidez omentzeko asmoz. Grabaketa, berriz, Elkar estudioetan burutu dute apirilko eta maiatzeko hilabetetan, eta Txema Garces tolosarra arduratu da ekoizpen artistikoaz. CDak Tolosaldea Tour-eko bulegoan jarriko dituzte salgai etzi, ekainaren 30etik aurrera.

## iragarki laburrak ▶



**Alkiza.** Familia bakarrerako txaleta, 4.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin, hiru solairuarekin, eta hauetako bakoitzak 120 m<sup>2</sup> ditu.

**Andoain.** Santa Kruz auzunea, 80m<sup>2</sup>ko bi etxebizitza erreformatuak,

kanpoaldera, igogailuarekin, eta bista ederekin.

**Andoain.** 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza eraberritua, sartzeko moduan, kanpoaldera eta eguzkitsua.

**Belauntza.** Bi familiantzako etxebizitza, bi solairuarekin eta 270m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**Berastegi.** Familia bakarrerentzako txaleta, 3.500 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**Donostia.** Antigua, Eskolta Real, etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.

**Iruia.** Laskibarreko zonaldea, hiru logelako etxebizitza, garajearekin, giltzak uztaila amaieran emango dira.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 150 m<sup>2</sup>ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 45m<sup>2</sup>ko lokal xarmanta, erakuslehi handiarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 50m<sup>2</sup>ko bulegoa.

**Tolosa.** Santa Maria plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, bainugela eta komunak. Oso egoera onean, garaje bikoitzarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamentua, 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.

**Tolosa.** Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza: egongela, sukaldea terrazarekin, bainugela, komunak eta garaje ibxia ditu.

**Tolosa.** Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erazgailuak 9.480 eurotatik.

**Tolosa.** Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukalde, terraza, bainugela, komun, trasteleku eta garaje ibxiarekin.

**Tolosa.** Usabalen, 350 m<sup>2</sup>ko pabiloia, alokairuan abuztutik

aurrera. Bi ubi garbarekin, bulego, bainugela eta abarrek hornitua.

**Tolosa.** Berdura plazan, merkataritza zentru erreformatua salgai, dena erakusleho.

**Tolosa.** Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, komunak, bainugela, terraza, trasteleku eta garajearekin.

**Tolosa.** Errementari kaldean, 3 logelako atikoa, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua.

**Errioxa.** Etxe atxikiak, familia bakarrekoko eta etxebizitza dituguz, Errioxako zonalde desberdinetan,

Logroño eta Najeratik gertu.

**IRITZIA ▶ LEIRE MONTES (ETA EUSKALGINTZAKO BESTE 397 NORBANAKO)**

## Euskararentzat ere etorkizun itxaropentsua

**A**giri hau sinatzen dugunok euskararen alde lan egiteak elkartu gaitu. Gure arteko aniztasun ideologikoa eta politikoa handia bada ere, euskararen normalizazioa lortu nahiak kezkatzen gaitu guztiok eta garbi ikusten dugu Euskal Herrian sortu den une politikoa oso garrantzitsua izango dela euskarak dagokion lekua jendartearen eskura dezan.

Orain arte urte luzetan euskararen alde lan egin dugun bezala, abian den prozesuaren aurrean itxaropentsu agertu nahi dugu eta prozesu honek aurrera egin ahal hizkuntza eskubideak

bermatzeko eta euskararen normalizazioa bultzatzeko neurriak ere adosteko aukera politikoak ikusirik, urratuko den bidean zehar geure baliabideen arabera ahaleginak egiteko prest gaudela aitortzen dugu.

Beraz, oraingo egoera honen aurrean jendarte osoaren konpromisoa beharrezkoa delarik, gure ere geure konpromisoa luzatu eta iritzia eman nahi dugu.

1. Elkarriketan eta giza eskubideetan oinarritutako prozesuaren aldeko ahaleginetan pausoak emateko dugun konpromisoa trinkoa adierazi nahi dugu. Bilakabide honetan norbanakook eta

gizarte eragileok dagokigun protagonismoa izan behar dugula uste dugu eta prest gaude gure esku dagoen guztia eskaintzeko.

2. Gatazka gainditzeko konponbidea herri honen eskubide indibidual eta kolektiboetan oinarritu behar da. Horien artean dauden hizkuntza-eskubideak zutarrietako bat dira norbanakoaren eta hizkuntza komunitatearen bizimodu duina lortzeko ezinbestekoak baitira, eta prozesuan euskal herritarrok hartutako erabakiak onartu behar diren neurrian, euskararen normalizazioa Euskal Herri osoan kanpotiko esku-hartzerik

gabe aurrera eramateko eskubidea ere onartu behar delako.

3. Mendeetan zehar euskaldunok bizi izan dugun hizkuntza-gutxitzeari bukera eman behar zaio. Egun euskararen normalizazioa oztopatzen duten legeriak gainditzeko unea iritsi dela uste dugu. Horregatik, prozesu politikoak euskararen normalizazioa ahalbidetzea ezinbestekoa du, eta gure guztiok horren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

4. Ardura denona da, gure geurea ez dugu saihestu nahi eta horregatik, neurri berean, prozesuaren bakoitzean konponbidearen parte diren eragile bakoitzak dagokion erantzukizun mailari muzin egin gabe joka dezala eskatzen dugu.

**GIZARTEA ▶**

## Haur Liburutegian, armairutik ateratako irakurgaiak eskura

Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna dela-eta 'Gay gida' osatu dute, eta ikusgai izango da Errota Haur Liburutegian, uztailaren 10erarte

**ESTI EZEIZA**

Tolosako Haur Liburutegiak, gaurko Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna dela-eta ekimen «praktiko eta interesgarri bab» jarri du martxan. Gida batek gaiari buruzko informazioa emango du, aniztasun sexualari buruzkoa, alegia: homosexualitateari buruzko filmak, musika, webguneak eta liburuak gomendatuz. Dokumentu hau liburutegietan begi bistan izango da uztailaren 10erarte. Tolosakoarekin batera, Ermua eta Markina-Xemeingo liburutegietan ere gauzatu da egitasmoa.

Aipatutako gidaren helburua material hori guztia ezagutaraztea da, eta informazioa nahi duenari aholku egokiak ematea «homofobiaren aurkako txerto moduan», liburutegietan materiala bistan jartzaz gain.

Gidak bederatzi atal ditu, eta lehendabiziko hirurak 0-4, 5-7 eta 8-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude; homosexualitate eta lesbianismoari buruzkoak bereizita agertzen ditu. Ondoren, gazteentzako «egokiak» diren irakurgaiak azaltzen dira, eta baita helduentzakoak ere. Azkenik, liburu tematikoen inguruko aholkuak ematen ditu gidak, hiztegiak, komikiak, bidaiak egiteko gida, gaiari buruzko poesiaren bilduma antologikoa...



Errota Haur Liburutegian, gazteko batzuk komikien sailean, irakurtzen. NOELIA LATABURU

Bestalde, ataletako batean, musika ere jorratzen da, «gay mugimenduarentzat erreferentziala den musikaz» aritzen da bertan. Beste batean, egungo filmak eta garai batekoak aipatzen ditu, eta hiru webguneren izenak ematen ditu. Honez gain, gay, lesbiana eta transexualen beharrak aintzat hartzeko euskal zerbitzuaren berri ematen du.

**iragarki laburrak ▶**
**LANA**

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesa dutenek deitu 677 32 99 34 telefonora.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldeko taberna batetan.

Eskarmentuduna izateko.

Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefonora.

**Tabernaria.** Villabonako taberna baterako neska euskalduna behar da. 15:30etik 22:30era. Igandeetan jai. Interesa dutenek dei dezatela: 650 48 79 34 telefonora.

**AISIA ▶**

### Arcachonera joateko aukera bihar, gazteek

Tolosako Gazteria sailak Arcachonera irteeran izena emanda dauden gazteei jakinarazten die bidaia honetan parte hartzeko Kultur Etxetik pasatu behar dutela matrikularen ordainketa egitera. Matrikula 17 euro kostatuko da, eta honekin batera gurasoen baimen agiria beteta ekarri beharko dute. Txangoa bihar izango da, eta 06:45etan Triangulotik abiatuko dira.

**DEIALDIA ▶**

### Gaur, Tolosa Kup txapelketarako batzarra

Tolosa Kupeko datorren batzarra gaur izango da, 19:30ean. Parte hartu nahi dutenek gazteria@tolosakoudala.net helbidera idatzi edo 943 67 03 83 telefonora deitu beharko dute. Txapelketa irailaren 16an hasiko da, baina izen-ematea uztailaren 14ra arte egongo da zabalik. Parte hartu nahi dutenek 75 euro ordaindu beharko dituzte.

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**
**Irudietan.**

www.tolosaldekohitza.info gure webgunean, irudietan atalean, ikusgai dituzue Tolosako sanjoanetako argazkiak. Jaietako momenturik esanguratsuenak gure argazkietan bildu ditugu.

## GUTUN@K ▶

## Marxismoa, etnozidioaren hazi?

Maiatzaren 24an, *Berria*-n, Joxe Manuel Odriozolak *Marxismoa, etnozidioaren hazi* iritzi artikulua ereki desadostasuna beharrezkoa dugu azaltzea.

Odriozolak marxismoa estaturik gabeko herrien etsai dela dio, etnozidioaren haziaren eramailetzat du historian zehar izan den filosofiarik iraultzaileenetakoa. Hori aurka egiteko ez dago Marxen hitzak irakurri besterik, Irlandako auziari buruz: «Kontseilu Orokorrak amnistia irlandarrari buruz harturiko erabakia (...) nahitaezko aurrealdintza da langile klase ingelesaren askapenerako eta gaur egungo indarkeriazko batasuna aldatzeko (Irlandaren esklabutasuna)...», (Lehen Internazionalaren Kontseilu Orokorren Aktak, 1868-70). Eta ez hori bakarrik. Neurri berekoak dira Marxek eta Engelsek poloniarren eta Balkanetako herrien askapen nahiei buruz zituztenak. 1840, 1850 eta 1860. hamarkadetan, Marxek ez zuen Poloniaren autodeterminazio eskubidea defendatzen soilik, baita bere indepen-

dentzia ere. Engelsek Marx, herri poloniarra askatasun nazionalaren alde altxa zen unean bidali zion gutunean ikus daitekeen bezala: «Denbora bat irauten badute, Europako mugimendu orokorrek elkar litezke, eta horrela salbatuko lirateke», (*Engelsen gutuna Marx, 1863ko ekainaren 11n*). Errusia tsaristatik, «herrien presondegia» handi horretatik, askatzeari salbamena deritzo Engelsek. Beraz, esan liteke ez dela egia estaturik gabeko nazioen etsai zirenik, Poloniarekiko edota Irlandarekiko jarreretan ikus litekeen bezala. Hau esaten du Engelsek beste lan batean, «bake internazionala bermatzeko, beharrezkoa da gatazka nazional guztiak ezaibatzea, beharrezkoa da herri bakoitza independente eta bere etxeko nagusi izatea» (*Biolentziaren papera historia, Engels*).

Marxek eta Engelsek nazio zapaldu guztien autodeterminazio eskubidea defendatzen zuten, argi baitzekiten gizakiak benetan aske izan nahi badu askatasun hori ez dela behar materialen asetzarekin soilik lortuko, behar kultural, intelektual eta filosofikoen asetzarekin batera baizik.

Odriozolak dio «Marxen eta Engelsen iritzirako, nazioaren auzia kapitalismoaren bilakaerak sortarazitako ondorioa izan da; azal-azaleko gaitz hutsala, dena esateko». Gauza batek ez dio besteari ezer kentzen. Izan ere, eta adibidetzat hartuz, jabego kapitalista, kapitalismoaren bilakaerak sortarazitako ondorioa izanik, horrek ez du eragiten hau azal-azaleko gaitz hutsala izatea. Bi sozialista zientifiko hauek, gizarteen historia aztertu ostean zerbaitetaz jabetu ziren, burgesia sortzarekin batera sentipen nazionala zabaldu zela honen eragin eremuetan. Honen azalpena? Burgesiak, jaun feudalek ez bezala (euren beharrik beraien lur esplotazioetik asetzen zizutzelako), merkantua behar zuen bere gaiak saltzeko. Burgesia lehiakorra da, zenbait eta merkeago ekotzi, orduan eta gehiago salduko du, eta merkeago ekoizteko modua teknologien hobetzea eta produktzioaren igoera dira. Produktzioaren igoerak merkantuen beharra dakar, ordea. Arazo honen aurrean, burgesia errege absolutistengana hurbiltzen hasi ziren eta ordukoak dira Europako Estatu handien sorrerak eta errei-

nuen batasunak. Batasun hau mantentzeko modu bikainetako dugu «kultura batasuna», bai kapitalistak eta bai langileak anaiak sentiaraztea, goikoen poltsikoan eskua sartzen saia ez daitezen.

Odriozolak, honako esaldi hau marxismoarena dela joz, zera dio: «...beharrezko baldintza zera izango litzateke: delako nazionalitate zapalduaren jardun politikoa iraultzailea izatea. Horrela ez izatekotan nazio zapalduaren mugimenduz ez luke eskubiderik izango onartua eta babestua izateko». Bada, Leninek dio: «Egoera honek langilego errusiarrari eginkizun bikoitz bat planteatzen dio: ez nazio guztien eskubide nazionalen erabakete berdintasuna onartzea soilik, baita estatu eraikuntzari dagoen eskubide berdintasuna ere, hau da, nazioen autodeterminazioerako eskubidea, banaketarako...» (*Nazioen autodeterminazioerako eskubidea, Lenin*). Marxismoak arazo nazionalari sortu zenetik eman dio garrantzia, oinarritzako baita zapalketa nazionala eta zapalketa sozialarekin amaitzeko.

MANU ODRIOZOLA ETA

IBON ARTOLA ▶ 'EUSKAL HERRIA SOZIALISTA' ALDIZKARIKO KIDEAK

## ADUNA ▶

## Ekintza planari buruzko bilera egingo dute gaur

Adunan, Udaltalde 21 Ernioalderen baitan, Agenda 21 prozesua garatzen ari dira. Orain arte herriko egoeraren diagnostikoa egin dute. Orain, hortik ateratako ondorioekin ekintza plana egin behar dute. Hori eztabaidatzeko, bilera egingo dute gaur. Kultur aretoan izango da hitzordua, 19:00etatik aurrera. Udalak herritar guztiak lutzatzen die deia bertan parte hartzeko.

## ANOETA ▶

## Tutorearen bisita bihar goizean KZgunean

Tutoreak bisita egingo du bihar Anoetako KZgunera. 09:00etatik 13:00etara izango da bertan. Ohi denez, mintegia eskainiko du. *Zure asgurua kontratatu* izenburupean. 10:00etatik 11:00etara izango da. Mintegian parte hartzeko ez da beharrezkoa aurretik izena ematea.

## ANOETA ▶ HIRIGINTZA



Lagun bat, zabalduko espaloitik igarotzen. I. GARCIA

# Bi metroko espaloiaz lotuta Igarabide eta San Joan kaleak

San Joan kaleko espaloia zabaldu egin dute oinezkoen higikortasuna errazteko; aurrekontua 51.882 eurokoa da

## ERREDAKZIOA

Anoetako San Joan kaleak Igarabide kaleko oinezkoen espaloiarekin lotuko den espaloia berria du, eta autoen zirkulaziorako errepidea ere zabaldu dute. Esku-hartze horrekin Haizea tabernako aurrealdean oinezkoentzat pasabidea sortuko da Igarabide kalean dagoenarekin lotuz. Horrela, Eko Tolosa frutategiaren aurrean dagoen espaloia bi metrotaraino zabaldu dute.

Errepideak kendutako zatia berreskuratu du, Haizea taberna aurreko espaloia estutu egin dutelako. Hau guztiari esker San Joan kaleak espaloia berria du eta autoen zirkulaziora-

ko bi karrileko 6,5 metroko plataforma.

Egun hauetatik aurrera, oinezkoek Herriko Plazako espaloitik barrena Igarabide kalera iristea posiblea izango dute. Duela gutxira arte espaloia estu bat zegoen; gainera, Igarabide kalearekin gurutze egitean estugune bat gertatzen zen, eta oinezkoek automobilen zirkulaziora zuzentzen zen plataforma erabili behar izaten zuten. Egoera honekin bai oinezkoak eta bai gidariak arriskuan jartzen ziren. Esku-hartze honen bidez kale honen higikortasuna hobetzen da eta segurtasuna handitu, oinezkoek ez dutelako errepidea erabili beharko leku horretatik igarotzeko.

Espaloia eta ibiltoki berriaren eraikitzea, bere azpiegitura zerbitzuekin, Haizea tabernako aurrealdean dagoen tartean egiten ari da. Lan guztiak bukatzean daude. Aurreikusitako aurrekontua 51.882 eurokoa da (BEZ barne). Udalak Foru Aldundiarekin lortutako akordioari esker aurrekontuaren %60 Foru Erakundeak ordaintzea lortu du.

Esku-hartze hau Udala «higikortasuna hobetzeko aurrea eramaten ari den ekintzen artean» kokatzen da. Beste ekintzen artean, esate baterako, Buztiñaga eraikuntzaren atzealdean dagoen haur parkeko akzesibilitatea hobetzea dago.

## badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

KOBRAKETA KANPAINA ▶

# Zorte ona, Leaburura eta Villabonara

HITZAko harpidedun izateagatik bidaiara eta otordu bikaina irabazi dituzte

**ERREDAKZIOA**

HITZak azken egunetan zozketa erakargarri bat eskaini zuen, egunkariko irakurle fideleen artean eginikoa. Irabazlearen izenak atera dira, zozketa egin ondoren, eta hauek izan dira zortea izan duten lagunak: bi lagunentzako Tenerifera bidaiara Alaitz Uzkudun Zuloaga

Villabonako harpidedunari egokitu zaio, eta astebeteko egonaldiaz gozatuko du lurralde horietan. Bigarren harpidedun sarituak Tolosako Zumeta jatetxean bi lagunentzako otordua irabazi du: kasu honetan, Leaburu-Txaramako Jesus Gorostidi Alberdi izan da. Zorionak, hortaz, biei. HITZA egunkariak, era honetara, harpidedu-



HITZAko irakurle bat, egunkariko ale batekin. N. URBIZU

nen fideltasuna merezi bezala saritu nahi izan du.

Aurrerantzean HITZAREN urteko kuota ordaintzen dutenek soilik jasoko dute etxean eskualdeko euskarazko egunkaria. Hala, harpidedunek hainbat abantailaz gozatuko dute: HITZA egunero etxean jasoko du eta zozketetan parte hartze-

ko aukera izango dute, eta deskontuak ere izango dituzte hainbat denda eta negoziotan.

**Giltzen beharra**

Horretarako guztiarako, oso garrantzitsua da banatzaileek atariko giltzak izatea: alde ba-

tetik, egunkaria etxeko postontzi guztietara iritsi ahal izateko eta, bestetik, banaketa azkarago eta hobeto egiteko. Dagoeneko harpidedun batzuek eman dute beraien atariko giltza. Beraz, giltzak eman ez dituen oraindik ere garaiz dago.

Hala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK hainbat puntu jarri ditu bi eskualdeetan harpidedunek beraien atariko giltza bertara eraman ahal izateko. Hauek dira uzteko aukera ematen duten lekuak: Anoetan, Izarti txokolategia; Iruran, Amets estankoa; Villabonan, Larrea kafetegia; Leitzan, HITZAREN egoitza; Tolosan, HITZAREN egoitza; eta Alegian, Jubilatuen taberna.

Giltza uztearekin batera oso garrantzitsua da harpidedunaren datuak eta helbidea era argi eta garbi batean ere adieraztea, identifikazio lana errazteko.

KULTURA ▶

## Ipuin kontalaria Abaltzisketan eta Orendainen

Etzi, ostirala, ipuin kontalaria Abaltzisketako eta Orendaingo liburutegietan egongo da. Idoia Santxez izango da bietan. Abaltzisketako liburutegian 17:00etan eta Orendainen 18:15ean eskainiko ditu emanaldiak. Galtzaundi Euskara Taldea da antolatzailea.

**AMEZKETA ▶**

## Bertso emanaldia etzi, balio anitzeko gelan

Etzi bertso afaria egingo dute Amezketan, baina, aurretik, 20:00etan, hain zuzen ere, bertso emanaldia izango da balio anitzeko gelan Anjel Mari Peñagarikano eta Jexus Mari Irazurekin. Doan izango da.

**ALEGIA ▶**

## Intxurreko pilotarien afari-merienda

Afari-merienda eginez emango dio denboraldiari amaiera Intxurre Pilota Eskolak. Ostiralean izango da Intxurre Elkartean, eta bertan bilduko dira 54 neska-mutil pilotariak, eskolako bultzatzaile eta gurasoak.

**ALEGIA ▶ GIZARTEA**

# UEMAko jaiaren baitan dagoen txekor jaterako txartelak salgai daude

Herriko tabernetan eta Kultur Etxean oraindik ere lor daitezke



Baliarraingoen prestatuko dute txahala, bezperan hasita. MAIDER JAUREGI

**ERREDAKZIOA**

Alegiako udalerria Udalerrri Euskaldunetako Mankomunitatean sartuko dela-eta, igandean jaia egingo dute, beste ekitaldien artean.

Txekor oso bat erreko dute igandean, herriko plazan, UEMA egunaren barruan egingo den bazkarirako. Horretarako txartelak salgai daude dagoeneko. Hain zuzen ere, herriko tabernetan zein Alegiako Kultur Etxean daude oraindik erosgai.

Bazkalostean, kafearekin batera, bertaratutakoak kantuan

jartzea da asmoa. Horretarako, Gartzot eta Edorta musikari eta kantari nafarren laguntza izango dute. Erromeria eta zahagiardoarekin emango diote bukaera festa egunari.

Bazkaria Baliarraingo taldeari esker egin ahal izango da, hauek erreko baitute txahala, bezperatik hasita. Lehen ere badute esperientzia honelako lanetan, Baliarrainen urterot egiten baitute txekor jatea.

Egun honetarako aukeraturako leloak *Herria da gorputza, hizkuntza bihotza euskararen taupada txintxarrien hotsa* dio, eta txintxarrien hotsa entzun-

go da ere txekor jatearen bueltan.

**Bazkariko menua**

Bazkarian, pasta entsalada, txekorra, postrea, kafea, kopak eta abar sartzen dira, eta 18 euro kostatuko da bakoitzarena. Hala ere, gaztetxoentzako, 16 urte artekoentzako, paella izango da, eta honetarako tikitak 4 euro balio ditu.

Txekor jatea 200 lagunentzat izango da, eta kopuru hau gainditzen denean ez da besterik onartuko, ez eta txartelarik ez daukan inor ere.

Batzordeak antolatu duen bazkaria da hau, beste hainbat ekitaldiren artean.

**AMEZKETA ▶**

## Ugarten betizu jaterako txartelak salgai daude

**ERREDAKZIOA**

Ohiturari jarraituz, Amezketako Ugarte auzoan betizu jatea egingo dute aurten ere, frontoian. Denak bertan parte hartzea animatzen dituzte Ugarten bizi direnek. Larunbatean izango da, 14:00etan hasita, baina txartelak aurretik eros daitezke. Hain zuzen ere, 25 euro balio ditu txartelak, eta Goikoetxeanean izango dira salgai. Gaur izango da erosteko azken eguna.

«Lan eta esfortzu handia eskatzen du hau guztia antolatzea eta errazagoa izaten da zenbat eta jende gehiagok lan egin». Beraz, lagundu nahi duenak antolatzaileekin harremanetan jarri.

abian da!

tropela.net

tourra, sarean, sariekin

## SAN PEDRO JAIK ▶

## EGITARAU ▶ HERRIZ HERRI

## ARESO

## ETZI

21:00. Afaria.

## UZTAILAK 1, LARUNBATA

09:00. Gosaria.

10:00. Eskea baserrietan.

15:30. Bazkaria.

18:30etik 21:30era. Musika plazan.

21:30. Afaria Pake-Toki elkartearen.

Ondoren. Musika goizaldera arte.

## UZTAILAK 2, IGANDEA

09:30. Gosaria.

10:00. Eskea herria.

14:30. Bazkaria.

19:00. Musika plazan Joxe Anjelekin.

## ASTEASU

## GAUR

20:30. Txupinazioa.

Sorginaren jaitziera eta pregoia. Txistularien eta buruhandien kalejira.

22:30. Bertso saioa frontoian, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin. Gai jartzalea: Jon Zaldua.

## BIHAR, SAN PEDRO EGUNA

10:00. Txistularien diana.

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Elizmendin

hamaiketakoa eta Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketa finalak.

18:30. Asteasuko XI. Dantza Solteko Txapelketa plazan.

19:30. Asteasuko Musika

kalejira: txistulariak, trikitilariak eta kantu jira.

23:00. Musika emanaldia plazan: Mal de ojo eta Izotz taldeak.

Gauerdian. Zezensuzkoa eta sufesta.

12:00-14:30 eta

15:30-18:00. Haur parkea.

## ETZI, JUBILATUEN ETA

## KOADRILEN EGUNA

11:15. Meza.

Ondoren. Aitzondo elkarteak herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketakoa.

13:30. Bertso eta trikitixa saioa plazan, Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariarekin.

14:30. Jubilatuen bazkaria frontoian bertsolariekin eta trikitilariarekin.

14:30. Koadrilen bazkaria herriko plazan.

Arratsaldean zehar. Laja eta lzer eta Epelde eta Lutxurdi trikitilariak ariko dira.

16:00. Haur jolasak.

18:00. Zezen txiki eta

poney-ak.

20:00. Mulambo taldearekin batukada kalejira.

21:30. Herri afaria.

Ondoren. Trikitilariaren erromeria.

## UZTAILAK 1, LARUNBATA

## HAURREN EGUNA

11:00. Haurren arteko krosa.

11:00. Marrazki Lehiaketa.

13:00. Haurren arteko

bazkaria plazan.

15:30. Arpegi margoketa.

17:00. Asteasuko XX. Mus

Txapelketa Herrikoia frontoian.

18:00. Kale antzerkia: Atikus

teatro taldeak aurkeztuta,

Unxitegiako kukumis meloa.

Ondoren. Buruhandiak.

23:00. Abiba diskojira

goizalderarte.

## UZTAILAK 2, IGANDEA

12:00. Pilota partida frontoian:

Asteasuko Pala Txapelketaren finala.

Ondoren. Sagardo dastaketa plazan.

18:00. Herriarren arteko herri kirolak.

19:00. Tapia eta Leturia

taldearekin erromeria.

## LARRAITZ

## UZTAILAK 2, IGANDEA

12:30. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketakoa eta

trikitilariaren eta bertsolarien

saioa izango da entzungai.

Bazkarian bilduko dira ondoren auzokideak.

## LEABURU

## BIHAR

10:00. Suziriak eta txistularien diana.

10:30. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzarien saioa.

11:30. Hamaiketako herrikoia Ostatuan.

## ETZI

11:00. Gaztetxoentzat

hamaiketakoa. Kontu

kontalaria: Garazi Hach

Embarek.

20:00. Asto proba: Astoa gehi

bi laguntzaile, 6 kideren aurka.

## UZTAILAK 1, LARUNBATA

15:30. Mus txapelketa Zazpi

Bide elkartearen.

16:00. Ume jolasak eta

txokolatada.

20:30. Euskal Presoak Euskal

Herrira kontzentrazioa. Argazkia

aterako dute bailarako presoek

bidaltzeko.

21:00. Herri afaria. Txartelak

Ostatuan 25 eurotan. Amaia

Agirre eta Jokin Uranga

bertsolaria eta Saioa eta

Alabier trikitilariak ariko dira.

## UZTAILAK 2, IGANDEA

## Elkartasun Eguna

Larresoroko lagunekin eta

Saharako Guelta herriarekin

09:30. Diana Tolosako

Dultzaineroek alaituta.

10:30. Meza.

Ondoren. Dultzaineroak eta

herriko dantzarien saioa.

12:00. Toka Txapelketa.

Leaburu-Txaramako Udaleko

I. Saria.

12:00. EHNA tramitatzeko

aukera izango da. Errolda

agiria, 3 argazki eta 15 euro

beharko dira.

18:30. Gipuzkoako 1. mailako

Aizkolari Txapelketa: Juan

Manuel Erasun, Fausto

Mugerza, Joxe Mari Olasagasti,

Joxe Miel Peñagarikano eta

Luis Mari Txapartegi.

Ondoren. Saioa eta Alabier

trikitilariaren saioa.

## URKIZU

## BIHAR

09:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

14:00. Gonbidatuekin

bazkaria. Ondoren, trikitilariak

alaituko dute eguna.

## UZTAILAK 1, LARUNBATA

20:00. Kanpaik jo eta suziriak

botako dituzte.

21:00. Auzotarren afaria.

Ondoren, trikitilariak.

## UZTAILAK 2, IGANDEA

12:00. Meza nagusia.

12:30. Toka Txapelketa.

18:00. Ume jolasak.

18:00. Bolo txapelketa. Egun

osoan trikitilariak ariko dira.

## Herriko ateak irekita

Gaur hasi eta igandea bitarte, Areson, Asteasun, Larraitzen, Leaburun eta Urkizun San Pedro jaiak ospatuko dituzte askotariko ekitaldiekin

## IÑIGO TERRADILLOS

San Joan jaiak igaro ostean badatoz sanpedroak lekua hartzeko prest. Hain zuzen ere, Areson, Asteasun, Larraitzen, Leaburu-Txaraman eta Urkizun, herriko zaindariaren omenez, gaur hasi eta igandea bitarte askotariko ekitaldiz beteriko egitarauaz gozatzeko aukera izango da.

Areson, bertako gazteek osaturiko Lagun Artea elkarte-



Aurten ere Leaburuko dantzariak emanaldia eskainiko dute. HITZA

ak antolatzen ditu sanpedroak; larunbatean egingo duten baserrietako eskea eta afaria dira egitarauko osagai nagusienak. Urkizun, osteguna, larunbata eta igandea hartuko dituzte jaientariko, eta Larraitzen bezala, trikitilariak eta herri afariak izango dira ekitaldi nagusiak.

Leaburun, bestalde, herri kirolek hartuko dute garrantzi berezia. Ostiralean, esaterako, asto proba egingo dute garai bateko ohiturak berreskura-

tuz; igandean, berriz, herriari tradizio handia duen Toka Txapelketa eta Gipuzkoako 1. mailako Aizkolari Txapelketa izango dira ikusgai. Herri kirol saioez gain, herri afaria eta hamaiketakoa ere garrantzitsuak dira, urtero-urtero jende ugari biltzen dituztelarik.

Asteasun, azkenik, egitarau zabalago izango da gaur hasi eta igandera arte. Bihar, San Pedro eguna izaki, Dantza solteko Txapelketa eta gaueko 2 kontzertuak dira aipatzekoak. Etzi, berriz, jubilatuek eta koadrilek eta euren bazkari eta afariekin hartuko dute protagonismoa. Larunbatean, gaztetxoenei zuzenduriko ekitaldiak nagusitu-ko dira, eta igandean, festak agurtzeko, herri kirol probak, pilota partidak eta erromeria izango dira.

## iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

Harreragileak, telefonistak, atezainak. Plazak libre.

Eskakizuna: Eskola Agiria.

Informazioa doan.

943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plazak libre.

Informa zaitze.

943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorluze,

Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko

udalteeetarako behar dira.

943 31 37 82.

Lanbideetako ofizialak. Pintoreak, mekanikoak, elektrikariak, arotzak, igeltseroak behar dira.

Mugagabeko kontratua.

943 31 37 82.

Basozainak. Plazak libre Foru

Aldundirako, udalteeetarako, Eusko

Jaurilaritzarako. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udalteeetarako, ikastetxeetarako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak. Plaza libre betetzeko

behar dira. Informazioa doan.

943 31 37 82.

Langileak. Bergaran, Hernanin eta Errenterian peoiak, garbitzaileak eta lorezainak behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Lanpostu finkoak

betetzeko plazak libre. Informazioa

doan. 943 31 37 82.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Aurrera elkarteak batzarrerako azken deialdia egin du

Zuzendaritza batzordea eratzeko azken aukera biharko batzarrean; inor aurkezten ez bada elkarteak deseginen dute

JAIONE ASTIBIA

Biharko egin du Aurrera elkarteak, zuzendaritza berria eratzeko batzarrerako azkeneko deialdia; elkarteak bazkide diren 295 lagunei dei egin die bertaratu daitezten, 20:00etako aurreneko deialdian, 20:30erako bigarrenenean. Zuzendaritza inor aurkezten ez bada, elkarteak itxi beharrean aurkituko direla adierazi dute, egun ardua hori duen batzordeak.

Bi urtetik berri behar omen delarik elkarteak zuzen-

daritza batzordea, helburu horrekin deitu zuten batzarra hilaren 16rako. Hiru bazkide bakarra agertu omen ziren eta ez zuten deus egiterik izan. Bigarren saiakera egitea ebatzi zuten «eta azkena», behin eta berriaz baieztatu dutenez: «Elkarteak eguneroko martxa eramanen duen batzordea beharrezko du; nahitanahiezkoa da batzorde desberdinen lanak eta gastuak koordinatzeko eta gainbegiratzeko», arrazoitu dute. Zentzu horretan, argi daukate: «Zuzendaritza ez

badago, ez da izanen tramitatzeko biderik ere. Baja eman beharko da gauza guztietan».

Beren esanetan, besteak beste, «futboleko taldeak, pilotak, eskolak, dantzariak, Mendi-bil mendi taldeak, Kirol jokotako taldeak... eta festetako, kabalgatako eta beste, ezin izanen dute Aurreraren izenean deus ere eraman aurrera. Elkarteak bere ere ixtea ekarriko luke», zorrotz adierazi dutenez.

Lau-bost laguneko taldeko bat aurkeztea nahikoa omen da: «1a 300etik aterako al da!».

KARLOS AGIRRE ▶ AURRERA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

## «Hau ixten bada ezin da jarduerekin jarraitu; gauza serioa da»

HITZA Aurrera elkarteak egungo lehendakari Karlos Agirre-ekin egon da elkartearen egoeraz.

**Gaur egun zenbat lagun zaudete zuzendaritza?**

Lau; lehendakaria, ordekoa, idazkaria eta diru-zaina. Duela bi urte, hasi ginean, ia egunero biltzen baginen ere, orain astean behingoarekin moldatzen gara.

**Zein da bere eginkizuna?**

Elkartearen jarduerari jarraitpena egin behar zaio, korrespondentziari erreparatu eta banatu... Batzorde askoz osatu-

tuta dago elkarteak: futbola, pilota, mendi taldea, dantzariak, orain zaldi taldea ere bai; festa batzordea, kabalgatakoak... Kontuak atera, Kirol Jokoetan ia 200 neska-multiko ibiliko dira astebururo gurasoekin hara eta hona... Bakoitzak bere lana egiten du, baina beti zuzendaritzarekin harremanetan. Elkarteak zertan dabilen martxa eraman behar da.

**Berritzea batzorra deitu arren ezin izan zen egin. Bihar beste deialdi bat. Sekula egon garen hobekiena gaude elkarteak: lokalaren**



J. ASTIBIA

jabe eta gauzak egiteko ahalmenarekin. Baina harrিতa nago nola ez den inor azaldu ia 300 bazkideetatik; batzordeak jendea behinik ez azaltzea... ez ohartzeko hau ixten bada ezin dela jarraitu jarduerekin. Gauza serioa da: ez badago elkartearen arduradunik, nola egin behar dira gauzak? Ezinezkoa da. ◀

ARESO ▶ SOKATIRA

## 560 kiloko lehen saioan hirugarren da Areso

Uztailaren 25ean du pisu honetan hurrengoa; igandean, berriz, 640ko azkena dute jokoan

J. ASTIBIA

San Joan egunean jokatu zuten 560 kiloko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako aurreneko jardunaldia, Galdakaon, eta Aresok 3 puntu eskuratu zituen, egunekoak, 3. geldituz.

Bost talde ari dira parte hartzen pisu honetan: Aresorekin, Goierriko A eta B taldeak eta Gaztedi A eta B; Nuarbe eta Mutriku ez. Hala, Aresok, lau tiralditatik bi irabazi zituen, bi B taldeen aurkakoak; A taldeekin, berriz, ez zuen punturik gehituzerik lortu. Hain zuzen ere, horiek biek gelditu ziren aresoarren aurretik. Goierriko tiraldi guztiak irabazi zituen (5 puntu); eta Gaztedi, berriz, goierriarren aurkako bakarra galdu zuten (4 puntu). Bi B taldeek guztiak galdu zituzten, elkarren aurkakoak izan ezik; hor berdin gelditu ziren (1,5 puntu).

Horrela, hurrengo saiorako, uztailaren 25ean jarraituko dute pisu honetako saioekin, aukera guztiak eskura dituzte, sailkapeneko hiru lehendabizikoek; egunari itxaron beharko zaio. Dena den, aresoarren pisu horretan itxaropen handiak dituzte jarriak. «Pisuan sartzeko eta egokitze-

denbora badago», baieztatu baitzuten orain aurrekoan. Pisu horretara egokitzeak adaketak egiteko aukera ere bazutela adierazi zuten.

640koan azken saioa

Baina, bitartean, 640 kiloko sariketarekin jarraituko dute, asteburu honetan. Hilaren 18an jokatu zuten bigarren saioa Laukizetan. Igandean, 11:00etan, Lesakan (suhiltzaile-etearen atzealdeko larrean) emanen diote bukaera pisu horri, hirugarren eta azken jardunaldia jokatu dute eta. Hirugarren saio honetan lortutako puntuak gehitu bakoitzaren kontuari eta txapelaren jabea zein izanen den erabakiko da bertan.

Hala, oraingoz aurreko bi saioak aintzat hartuz, txapela zeinek irabazi, borroka bizia dago Nuarberen eta Gaztedi Aren artean, 13narekin, puntuz berdin baitaude; ezin esan daiteke gauzak bi horien artean erabaki beharko lirakeenik, ordea; izan ere, 3. eta 4. lekuan ere 9narekin berdintuta baitaude Areso eta Goierri A. Beraz, norgehiagoka gogorra eta tentsio handikoa izatea espero liteke, inondik ere.

hilerria ▶

### Karmen Arruti Ugarriza (Tomas Orbegozoren alarguna)

Herenegun hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bego—



Seme-alabak: Inazio eta Inmakulada Lizarra, Mila (Joxe Berasategiren alarguna), Jose Luis (†), Kontxi eta Pablo Leon eta Juan Manuel eta M<sup>a</sup> Jesus Martinez de Morentin; bilobak: Inigo eta Nerea, Joseba eta Nora, Aitor eta Esther, Miren, Jon eta Olatz, Miquel, Jana eta Aitor; birlobak: Nerea eta June; anai-arrebak: Jesusa (Joxe Orbegozoren alarguna), Joxe Mari (†) eta Xanti (†), bilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otowitz bat eskatzen dizute, eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, SOREASUKO SAN SEBASTIAN parrokian, gorputza bertan dala egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Euskal Herria 31, 7B  
oharra ▶ hilerria Azepeitiko tanatorioan dago

AZPEITIAN, 2006ko ekainaren 28an

hilerria ▶

### Jose Luis Galarraga (‘Ispilla’)

Bihotzean min dugu  
min etsia,  
zure bihotz samurra  
ezustean ebatsia  
Gure oroitzak izan bidelagun  
BETIKO BIZIAN



Elizkizuna GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN,  
GOIAZKO parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ispilla baserria.  
oharra ▶ Hilerria Tolosako tanatorioan egongo da. Gorputz  
laguntza bere familiarren artean egingo da gaur, 11:00etan

GOIATZ, 2006ko ekainaren 28an

hilerria ▶

### Jose Luis Galarraga Leunda (Udaleko zinegotzia)

Ez agurrik ez adiorik  
gero arte baizik



Bidegoiango Udalak eta lankideek

BIDEGOIAN, 2006ko ekainaren 28a

▶ hilerriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
totalaldean@totaldeko-hitza.info



AGENDA ▶

ANTZERKIA

**Tolosa.** *Entre perro y lobo.* Topo teatro taldearen antzezlan, helduentzat. 22:00etan, Amarozko Auzo Etxean. VIII. Antzerki Astearen baitan.

DEIALDIAK

**Gaztelu.** Gay eta lesbianen Harrotasun Eguna dela eta, gaiaren inguruko filma proiektatuko dute 20:00etan, ostatuan, Kultur batzordeak antolatuta. Gero, afaria egingo dute. **Ugarte (Amezketeta).** Betizu jatea egingo dute larunbatean. Gaur da txartelak erosteko azken eguna, Goikoetxearenean.

ERAKUSKETAK

**Tolosa.** *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskulturak. Uztailaren 1a arte ikusgai, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** Yolanda Artolaren margolanak, Frontonen. **Tolosa.** Iñaki Epelderren, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren lanak, Errota tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza, Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
Tolosa, Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

**Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
18:00-19:00. Iraulí uhinak.  
21:00-22:00. Bide okerretik.  
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Tourra, tropeletik

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Tropela Elkarteak Tourrerako lehiaketa jarri du martxan bigarren urtez [www.tropela.net-en](http://www.tropela.net-en); HITZA da laguntzaile nagusia

ERREDAKZIOA

Iazko arrakasta ikusita, eta Frantziako Tourra dela eta, arten ere tropela.net proiektuaren baitan lehiaketa jarri du martxan Tropela elkarteak, txirrindularitza ardatz hartuta, eta euskara teknologia berrietara zabaltzeko asmoz. **HITZA** da lehiaketaren laguntzaile nagusia, Orbearekin batera.

«Iaz bezala, Internet bitartez soilik egin ahal izango da izen-ematea, [www.tropela.net-en](http://www.tropela.net-en). Pertsona bakoitzak kiniela bat egin ahal izango du, dena euskara hutsean», azaldu dute. Berrituta dator tropela.net; iazkoarekin alderaturik, hauek dira lehiaketaren berrikuntzak:

1. Kiniela egiterakoan txirrindulari bakoitza zenbat aldiz aukeratua izan den jakin ahal izango da, portzentaietan.
2. Tropeltxoen atala ere berirituta dator. «Iazko arrakasta ikusita, atal honi indar handiagoa eman nahi izan diogu: nahi adina tropeltxo sortzeko aukera izango da, tropeltxo bakoitzak bere kudeatzailea izango du, eta tropeltxoak pribatuak ala publikoak izango dira (tropeltxo publikoetan edozein sar daiteke eta pribatuetan, berriz, kudeatzaileak erabakiko du erabiltzailea onartu ala ez behin honen eskaria jasota)».
3. Erabiltzaile bakoitzak bere txirrindularia sortu ahal izango du. «Aurten pertsonaia bat eta bere bizikleta aukeratzea posible izango da. Txirrindularia tropeltxoetako sailkapenen animazio edo adierazpen grafiko ikusgarrian erakutsiko da».
4. Mugikorretik sailkapena



Zestoako bainuetxean banatu zituzten iaz Tropelaren lehen lehiaketako sariak. N. EXPOSITO / UROLA KOSTAKO HITZA

konsultatzea ere posible izango da. Tropela Elkarteak «teknologia berrien erabilpena euskara hutsean ahalbideratu nahian, WAP bidezko orria prestatu du erabiltzaileek informazioa lagun artean, tabernan, hondartzan nahiz mendian, ordenagailu beharrik gabe eskura izan dezaten».

Sarien artean izango dira, besteak beste, bizikleta zorgarri bat (Orbea), asteburu bat Atxaspi Hotelean, arropa sorta bat (Astore), bizikleta ekipamendu bat (Essai)... eta egunero euskal txirrindulariek eskainitako maillotak (Patxi Vila, Haimar Zubeldia, Unai Osa, Eneritz Iturriaga, Haimar Zubeldia, Juanma Garate, Andoni Aranaga...). Izena emateko azken egunak dira hauek.

**SU-ETENIK EZ HETEROSEXISMOAREN KONTRA**

**ehgam**  
gaytasuna

[www.ehgam.org](http://www.ehgam.org)

euskal herriko GAY LES askapenerako mugimendua

**ZUK ZEUK EZAGUTU**

**gehitu**

EUSKAL HERRIKO GAY LESBIANAK  
TRANSBAGAIEN ERKATEK